

LENIN

Marx'ek azia erein eban, baiña bere denporan Rusia'n baiño ez zan erne. Emen jabetasuna kendu eben, agintaritza lortu eta proletarioen diktadura ezarri eta laterri aundi bat eregi.

Baiña zelako erailketak eta kalteak orretarako! Gaur Berlin'go ormea kendu zan ezkerro, iñok ez dau sinisten komunismoa gizarterako bide egokia danik. Zelan edo alan jarraitzen dau Kuba'n eta Txina'n.

...

Lenin 1870n. urteko aprillaren 22n. agunean jaio zan.

Agintaritzara eltzeko Tzar'en sendia (Romanof) erail eban. Onek be Lenin'en anai bat il ei eban lenago terrorista zalako.

1891n. urtean amaitu ebazan zuzenbideko ikasketak eta lau urte geroago espetxeratu egin eben langilleen alde agertzen zalako. Siberia'ra eroan eben eta ondo bizi izan zan an bere emazteagaz: Irakurten, arraintzan...

1900n. urtean askatu eben eta Suiza'ra joan zan. 1903n. urteko bagillean sortu eban alderdia eta alderdi onetan bera zan boltxebike edo maioritarioen buru, besteak mentxebikeak edo minoritarioak ziran.

Munduko lenengo gudan berak guda ori Rusia-barruan izatea nai eban, erritarren arteko gudea, baiña ez eban lortu.

Lenin biozkatuta egoan, urtebiderik ikusten ez ebalako, baiña 1917n. urtean, esan dogun lez, kendu eban Tzar agintaria eta Proletarioen diktadura ezarri eban. Gudaren bidez lortu eban agintaritza ori.

Izukeria agertzeko bide lez, "txeka" sortu eban eta Gulag deritxen zigor-zelaiak be bai.

Urrengo urteak izan ziran gogorrenak: Erailketak ugari, giza-taldeak itota, erritarrak gasagaz

erailda, baserritarrai lurak kendu eta oneik erail edo Siberia'ra bialdu eta euren lurak laterritratu. 15 milloi baserritar desagertu ziran.

Baiña iñondik ez zan agiri esandako askatasuna eta jatekoa urri egoan, ogia bera be bai.

1922-24 urteetan gaisorik egoan Lenin, berbea be galdu eban eta Stalin jarri zan agintari. 1924n. urtean il zan Lenin eta Plaza gorrian illobiratu eben. 1991n. urtean amaitu zan artean emoten jakon kultoa.

Gudaritzan 701.847 il ziran , gaiñera millak eta millak fusilatu ebezan. Gosea, otza eta gaisoak ziran nagusi eta askok erail ebezan euren buruak.

Guztiz eraildakoak milloi bi izan ziran eta milloi bi erbesteratuak. Urrengo urteetan Lenin'ek eta bere lagunak eun milloi baiño geiago erail ebezan.

Eta dana zertarako? Erria gosez isteko? Ormea egiñaz galazo eutsen erritarrai sortaldera joatea.

Baiña, azkenean kendu zan Berlin'go orma ori. II Juan Paulo Aita Santuak kentze orretan zer-ikusia izan ei eban.

OLAZAR'tar Martin'ek

